

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak omenaldia egin die 2013an erretiratu edo zendu ziren 527 enplegatu publikori

Diploma bana jaso dute eta, bertan, Foru Gobernuak lanean izandako ardura eta profesionaltasuna eskertu die.

Martes, 11 de febrero de 2014

Nafarroako Gobernuak, astearte honetan, 2013an erretiratu edo zendu ziren Foru Administrazioako [527 enplegatu publikori](#) egin die omenaldia.

Ekitaldia Baluarte Nafarroako Biltzar Jauregi eta Auditorian izan da eta Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakaria izan da bertako buru. Gainera, Javier Morrás Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak eta Gregorio Eguílaz Funtzio Publikoko zuzendari nagusiak ere parte hartu dute.



Barcina Lehendakariak 2013an erretiratu edo zendu ziren enplegatu publikoek eskainitako zerbitzua eskertu du.

[Mintzaldian](#), Lehendakariak Nafarroako herritarrei eta Foru Komunitatearen aurrerapenari eskainitako "zerbitzu bikaina" eskertu die. "Zuetariko bakoitzaren lana funtsezkoa izan da herritarrei kalitatezko prestazioak emateko, horiek Nafarroa sendotu eta garatzen lagundu baitute", azpimarratu du.

Halaber, omendutakoei hasi berri duten etapa berrirako "desiorik onenak" opatu dizkie, eta "modu aktiboan" aprobetxatzea espero duela adierazi die. "Zuen esperientziaren ekarpena, bizitzan ardatz dituzuen balioen transmisioa eta izan duzuen konpromiso animotsua oso erabilgarriak dira gure elkarbizitza indartzeko", aitortu du Yolanda Barcinak.

Omenduek Nafarroako armarría agertzen duen bereizgarri eta diploma bana jaso dituzte. Diploman, Foru Gobernuaren esker ona adierazten da, lanean erakutsitako ardura eta

profesionaltasunagatik.

527 omenduetatik 321 emakumeak dira eta 206 gizonak. Horietatik 213 osasunaren alorrekoak, 182 hezkuntzakoak, 125 administraziokoak eta 7 justiziakoak izan dira. 17 laneko bizitza amaitu aurretik hil ziren.

Halaber, azpimarratzekoa da 145 funtzionario Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak kudeatutako eta Administrazioan 1992. urtea baino lehen sartu ziren enplegatuei aplikatzen zaien Foru Aldundiko montepiokoak ziren. Gainerakoak beste sistema batzuetan zuten eginda alta, Gizarte Segurantzán eta bestelako mutualitateetan.

Esker ona adierazteko ekitaldia 1985etik egiten da. Iaz 603 enplegatu omendu ziren eta, horren aurreko urtean, 575.



Barcina Lehendakaria omendutako bati diploma ematen.